

INFORMAZIO-OHARRA

2014KO KONTRATAZIO-ZERRENDETAN IZENA EMATEKO JARRAIBIDE OROKORRAK LARRIALDIETAKO IBILGAILUEN GIDARIA KATEGORIAKO LANPOSTU FUNTZIONALA, 3. LEHENTASUNA

2019ko urriaren 1ean, 687/2019 Ebazpena argitaratu da Osakidetzaren webgunean, 2014ko Kontratazio-zerrenden atalean (<https://lc2014.osakidetza.eus/>). Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Giza Baliabideen zuzendariaren Ebazpen horrek **Larrialdietako ibilgailuen gidariak kategoriako lanpostu funtzionaleko indarreko kontratazio-zerrendetan (3. lehentasuna)** izena emateko epea irekitzen du, etorkizuneko kontratazioei begira Osakidetzak dituen hautagaien zerrenda zabaldu behar baita.

Aipatutako zerrendak 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren laugarren atalean aurreikusitakoaren arabera barematuko dira, eta egun indarrean dauden zerrendetako azken hautagaiaren atzetik antolatuko.

Larrialdietako ibilgailuen gidaria (3. lehentasuna) kategoriako lanpostu funtzionalean onartua izateko, ezarritako epearen barruan eman behar dute izena interesdunek (urriaren 2tik 22ra), eta baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatu:

- a) **Larrialdi Sanitarioetako Teknikari titulazioa** izatea edo izateko moduan egotea, edo dagokion habilitazioa edukitzea. Izangaiek ebazpen honetan ezarritako epearen azken egunera arte dute baldintza hori betetzeko.
- b) **B motako gidabaimena** edo baliokidea izatea. Izangaiek izena emateko eskabideak aurkezteko epearen azken egunera arte dute baldintza hori betetzeko.

Era berean, **C eta D motako gidabaimenak** dituzten interesdunek halakoak ere **aurkeztu behar dituzte**; izan ere, nahiz eta ez diren Larrialdietako ibilgailuen ofizial gidarien zerrendan sartzeko ezinbesteko baldintza, baliteke haiek aintzat hartzea kontratazio jakin batzuetan, ibilgailuaren ezaugarrien eta indarreko legearen arabera.

IZENA EMATEA, EPEA ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Izena emateko epea 2019ko urriaren 2an hasiko da, 09:00etan, eta urriaren 22an amaituko, 14:00etan.

Eskaera modu telematikoan egin beharko da, <http://www.osakidetza.eus> webgunean eskuragarri dagoen aldi baterako kontratazio-zerrenden aplikaziotik, ibilbide honetan: Enplegu publikoa / Aldi baterako kontratazioa / 2014ko kontratazio-zerrendak / Eskera.

Kontratazio-zerrendetan izena emateko eskaera beteta, "**Kontsulta pertsonalizatuak**" atalera sartu beharko da interesduna, eta, han, "**Curriculum**" sakatu, jakiteko informaziorik atxiki edota agiririk aurkeztu behar ote duen webguneko 2014ko Kontratazio-zerrendak ataleko abisuetan argitaratutako **izena emateko jarraibideen arabera**.

Halaber, interesdunak agiririk aurkeztu behar badu, **agiriak aurkezteko dokumentu bat** dago erabilgarri beste abisu batean.

Zerrendetan onartua izateko eta zerrendak sortzeko, **titulu akademikoa**, Larrialdietako ibilgailuen gidaria kategoriako lanpostuan izandako **lan-eskarmentua** eta **euskara-titulua** hartuko dira aintzat.

Gainera, gogoratu beharreak da kontratazio-zerrendetan soilik hartuko dela aintzat **2011ko EPEn (2012/02/15) izena emateko azken egunera arte izandako lan-esperientzia gehi deialdi honetan izena emateko azken egunera arte (2019/10/22) Osakidetzan izandako lan-eskarmentua.**

AGIRIAK AURKEZTEKO TOKIA

Izena emateko eskabidea aplikazio informatikoaren bidez igorri behar da; beraz, **ez da aurkeztu behar.**

Interesduna **Osakidetzako langilea bada** eta ez bada sartzan **agiriak** aurkezteko salbuespenen barruan, eskabidearekin batera agiriren bat aurkeztu behar izanez gero, **lanean dabilen ESiko Pertsonaleko Zuzendaritzan** aurkeztu beharko du dokumentazioa.

Osakidetzan lanean ez daudenentzat, agiriak aurkeztu edo bidaltzeko lekuak jarraian jasotakoak izango dira:

- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua – Hautaketa eta Horniketarako Zerbitzua – 2014ko kontratazio-zerrendak (Araba kalea, 45, Gasteiz)
- Ezkerraldea-Enkarterri-Cruceseke ESla (Gurutzetako plaza z.g., Gurutzeta-Barakaldo)
- Barrualde-Galdakaoko ESla (Labeaga auzoa, z.g., Galdakao)
- Donostialdeko ESla (Begiristain Doktorea pasealekua, z.g., Donostia-San Sebastian)
- Bidasoko ESla (Zubieta finka, Mendelu auzoa, z.g., Hondarribia)
- Debabarreneko ESla (Mendarozabal auzoa, z.g., Mendaro)
- Debagoieneko ESla (Nafarroa etorbidea, 16, Arrasate-Mondragon)
- Goierri-Urola Garaiko ESla (Argixao auzoa, z.g., Zumarraga)
- Lezako Ospitalea (Logroño-Gasteiz errepidea, 59. km-a, Guardia)

ARAU APLIKAGARRIAK

Indarreko aldi baterako kontratazio-zerrendak 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren (2011ko ekainaren 6koa EHAA) eta aplikazio orokorreko gainerako arauen bidez arautzen dira. Erabaki hori, hain zuzen ere, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluak emandako Erabakia da, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio-zerrendak sortzeko eta kudeatzeko xedearekin.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 1ean